

Miren Alcala: “ez bagara txikitatik ohitzen gero handitan oso zaila da heldutzen garenean ohitura berri batzuk izatea”

Miren Alcala *Dejabu* konpainiaren zuzendari artistikoetako bat da . Ikasketa Ingelesetan Linguistika, Historia eta Literaturan graduatua da. Horrez gain, London International School of Performing Arts eskolan sormenaren graduondoko bat egin zuen eta arte eszenikoa eta interpretazio ikasketak burutu ditu Iruñako ENT eskolan. Emakumearen eguna dela eta, bere ibilbidea gehiago ezagutuko dugu gaurkoan.



Zaila izan da zaudeten tokian egotea? Zergatik?

Bueno, ez nuke esango zaila, bai behartu nauela arrisku eta hautu potente batzuk egitea garai batean non ez zen hain erraza erabaki tinkoak hartzea testuinguruagatik. Ba mundu guztia zihoan unibertsitatera eta zu zinoazen antzerki eskola batera, arraroa da. Baina bueno, horrelako erabakiak hartzea zaila ez baina bueno, eskatzen dizu disziplina edukitzea eta desioa, gogoia.

Zuen lanean gizonak emakumeek baino garrantzia gehiago dute? Zergatik?

Nik ezetz esango dizut. Suposatzen dut galdera hori datorrela historiaren ondorio batengatik, eta oraindik ere oso markatuak dago gizonaren figura, antzerkia egiteko estruktura oso maskulinoa izan delako beti. Baita zuzendari eta idazle guztiak ere maskulinoak izan direlako. Uste dut gaur egun gauzak aldatzen ari direla zorionez eta beste modu batera ari garela lan egiten, batez ere, guk gutxienez, *Dejabun* gure bidean ez dugu batere patroia horien jarraibiderik egiten, beste leku batetik egiten dugu lan, baina egia da oraindik herentzia hori hor dagoela eta horrekin bizi eta hori eraldatu nahiean gabiltzala.

“Oraindik herentzia hori hor dago, gizonak pisu handia dute arte sorkuntzak eta horrekin bizi eta hori eraldatu nahiean gabiltzala”.

Egin dituzuen bidaiak zergatik egin dituzue? Gauza berriak ikasteko?

Bai gehienbat ikasteko. Beti txikitatik eduki dut fantasia hori, Londreseko antzerki mundua eta kultura oso zabala zela eta beti hara joan nahi nuen, berriz ere, desio batek bultzatuta. Ikasteko, beste kultura bat ezagutzeko, beste jendea ezagutzeko eta zure gaitasun eta buruko mapa hori zabaltzen joateko.

Nola sentitzen zarete konpainia bateko zuzendaria izateagatik?

Ba, eskertuta, harro eta arduratsu ere bai; beti ere zuzendaritzan zaudenean eta erabakiak hartzen dituzunean ardura bat ere hartzen duzulako. Horrela baina ilusio handiz.

Beste lanbideren bat baduzue zuzendariak izateaz gain? Bertatik bizi daiteke?

Duintasunez...

Bueno, gu zuzendari artistikoak gara konpainian baina ez ditugu bakarrik antzerki lanak sortzen. Horrez gain antzerki klase eta ikastaroak ematen ditugu, elkarrizketak egiten ditugu, instalakuntzak prestatzen ditugu, kontzeptutan lan asko egiten dugu eta gure barne filosofia ere asko lantzen dugu, beraz, gauza pila bat egiten ditugu baina denak badauka begirada artistiko bat.



“Denak dauka begirada artistiko bat”

Nolakoa da zuen sorkuntza prozesua?

Ba gu sartzen gara espazio batean normalean ideia batekin edo irudi batekin edo amets batean gertatu zaigun zerbait buruan dugularik. Horrekin sartzen gara eta hasten gara ezerezetik inprobisatzen objektuak, gure gorputzak, ahotsak... denak elkarrekin jartzen eta poliki-poliki gauzak sortzen. Gero joaten gara gauza horiek apuntatzen eta “beno hau sortu dugu”. Jarraian, joaten gara josten, sortutako horiek historia baten pilatzen. Poliki-poliki pertsonaiak azaltzen dira eta horrela irudiz oso kahotikoa den estruktura sortzen dugu, baina badauka bere ordena eta logika

nolabait. Beraz, anabatatik hasten gara eta poliki-poliki goaz dena fintzen, garbitzen eta azkenean antzezlanaz sortzen.


Herritarrak antzerkia kontsumitzera ohituta daudela esango zenuke?

Ez asko, uste dut ez daukagula kultura handia antzerkira joateko. Egia da Erreterian badaudela hainbat pertsona beti joaten direnak antzerkira, baina ez dakit, faktore askorengatik, baina bai ohitura, batez ere herri honen kultura oso soziala izan delako eta gero orokorrean herri honetatik kanpora, ba kultura eta artearen lekua ikastetxeetan ez dagoelako oso txertatuta eta txikitatik ez bagara ohitzen gero handitan oso zaila da heldutzen garenean ohitura berri batzuk izatea.

Edo oraindik kostatzen da jendea saioerara hurbiltzea?

Bai, bueno baina positibo mantendu nahi dut eta uste dut badatorrela antzerkia indartsu, jende gaztea dator ideia eta proposamen oso potenteekin eta uste dut hori adibidez, zuen belaunaldiak eta jende gazteak beste leku batetik hartzen dituzuela gazteen proposamenak, aurreiritzi gutxiago dituzuela eta animatzen zaretela gehiago, orduan nik esperantza daukat zuekin antzokiak beteko direla.

Arrastoak gidaliburua kaleratu zenuten pasa den urtean. Nolako harrera izan du?



Arrastoak gida liburua publikatu genuen 2015ean edo. Lehengo urtean liburuxka pedagogiko itxura hartu zuen eta hori, klaseak emateko sortu genuen hain zuzen. Autoedizio bat izan zen, eta ze harrera eduki duen? Ba ez dugu ireki, ez dugu kanpora ireki, guretzat egin dugun lan bat izan da gure metodologia ordenatzeagatik eta erreminta bat sortzeagatik baina oraindik ez dugu erabaki nola argitaratuko dugun. Oraingoz guk ditugu kopiak. Egia da, lagun eta pertsona batzuei pasa dizkiegula eta asko gustatu zaiela eta guk bertan ere, ba erabiltzen ditugula klaseak emateko orduan ze gure oinarriak azalerazen dituen gidaliburu bat da.

Azalduko zenigukete bertan agertzen den ariketaren bat?

Bai, bueno, gu beti hasten gara lanean gorputzetik eta gorputzaren esentzia arnasa da, orduan arnasketarekin pasa dezakegu denbora pila bat, arnasketa lantzen ze azkenean zure gorputzarekin konektatzen, zure pentsamenduak kontrolatzen, meditazio txikiak egiten, beraz, askotan hasten gara etzanda, begiak itxita, musika goxoarekin eta arnasten gure buruarekin kontaktuan jartzeko, adibidez.

Hau izan da guztia, mila esker galderak erantzuteagatik eta zure denbora guri eskaintzeagatik. Egun ona izan. Agur!

Egilea: Amane Gogorza Artabide